

Jarduerak: Txirikorda

Gure eguneroko errealitera hurbiltzea,
gizarteratzearen eta kide izatearen
ondoriozko bizikidetza positiboa sustatzeko.
Komunitate migratzailearekin eta afro-
ondorengoenarekin elkarreraginean aritzea.



MPATAPO ikurra:
«Baretze-korapiloa».
Berradiskidetzaren, bakearen
eta bakegintzaren ikurra.

3. Jarduera:



Izenburua: Nirekin ekarri nuen hizkuntza: soinu hau egiten du Afrikak Euskadin

Kategoria: TXIRIKORDATU

Aurkezpena:

Afrikak altxor bat zaintzen du: modu heterogeneoan erabiltzen diren 2.000 hizkuntza inguru. Batzuek, hala nola *yorubak* edo *swahiliak*, 40 milioi hitzun baino gehiago dituzte, eta beste batzuek, *laal* edo *shabo* hizkuntzek adibidez, ez dute ehun baino gehiago.

Jarduera honetan, gure auzoan edo hirian entzuten diren hizkuntzetako batzuk ikusiko ditugu, eta, horrela, Euskadin Afrikako biztanleria migratzaileari esker, dagoen hizkuntza-abetesuna ezagutuko dugu, haien kultura, tradizioak eta ama-hizkuntza ekarri baitituzte.

Beraien herrialdeetako dialektoak ezagutuko ditugu, eta nola saiatzen diren distantziatik horiei bizirik eusten, beren nortasuna ez galtzeko.

Helburu didaktikoak:

1. Gure auzo edo hiriko hizkuntza-aniztasunera hurbildu.
2. Hizkuntzen aniztasuna balio kultural gisa baloratu.
3. Gure auzo edo hiriko elkarte

mugimendua ezagutu.

4. Kulturarteko herritartasun inklusiboa eraikitzen lagundu.
5. Kultura desberdinen arteko aniztasuna eta elkarrizketa errespetatu.
6. Gizakien arteko berdintasun intrintsekoa errespetatu, diskriminazioa eragotziz eta bizikidetza sustatuz.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.
4. Ekimenerako eta espiritu ekintzaileerako gaitasuna.
5. Izaten ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Euskara eta euskal literatura eta gaztelania eta espainiar literatura** (Gaitasuna komunikazio linguistiko eta literarioan).
2. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
3. **Balio etikoak** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
4. **Hezkuntza plastikoa, bisuala eta ikus-entzunezkoa** (Gaitasun artistikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Munduan hitz egiten diren hizkuntzen herena Afrikakoa da

- (1.000 hizkuntza baino gehiago).
- Afrikako kontinentean, hizkuntza autoktonoekin eta eskualdeetakoekin batera, potentzia kolonizatzaileek sartutako Europako hizkuntzak bizi dira.
- Afrikako egungo hizkuntza-mapa Europako hizkuntzen erabilera inposatu zuen kolonizazio-prozesuaren ondorioa da.
- Europako hizkuntzak konkistatze-ko tresna gisa erabili ziren kolonizazioan.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Ikasgelan izan daitezkeen diskurtso arrazistak identifikatu.
- Ikasgelan arrazializatutako ikasleak baldin baditugu, haien erreakzioei arreta eman.

Garapena:

Jardueraren helburua da kultur aniztasun nabarmena duten auzo eta hirietan gizarteratzea, partaidetza zentzua eta herritarren bizikidetzat positiboa sustatzea. Horretarako, ikasleek hurbilen duten migrazio-komunitatearekin elkarreraginean aritzeko jarduera bat garatuko dugu.

1. ZEREGINA: Hasteko, irakasleek jardueraren helburuak, garapena eta egin beharreko lanak aurkeztuko dizkiete ikasleei. Guztien artean, ezagutzen diren edo Interneten dauden auzoko edo hiriko biztanle migratzaile edo arrazializatuen denden eta elkarrean zerrenda egingo da.

Ondoren, lauzpabost ikasleko taldeak osatuko dira. Taldeak irakasleek ego-

kitzat jotzen dituzten irizpideen arabera osatu ahal izango dira, eta ikasleei horien osaketa erabakitzen uztea ere badago.

2. ZEREGINA: Taldeak osatu ondoren, bisitatuko dituzten denda eta elkar-teak banatuko dira, Afrikako pertsona migratzaile edo arrazializatuak ezagutzeko. Horiekin hitz egiteko eta beraien hizkuntzaz galdetzeko eskatuko diegu.

Elkarrizketarako gidari izan daitezkeen galdetegi labur bat da honako hau:

- Pertsonaren izena eta adina:
- Jatorriko hiria:
- Gaur egun, hemen bizi da:
- Hizkuntza:
- Hitzunak:
- Hitz egiten den herrialdeak:
- Alfabetoa:
- Estatus ofiziala (kategoria nazionala aitortzen zaio?):
- Bitxikeriak:

Halaber, zenbait hitz eta esamolde esaten irakasteko eska diezaiekegu, hala nola:

- Kaixo
- Zer moduz zaude?
- Zer moduz dago zure familia?
- Eskerrik asko
- Ondo
- Adio

3. ZEREGINA: Azalpenean, talde bakoitzak istorio horiek guztiak kontatuko ditu, argitalpen independente bat sortuz, aldizkari edo fanzine estilokoa. Laguntzarako materialetan, ikasleek beren argitalpenak ekoizteko hainbat teknika urratsez urrats ikaste-ko tutorialak aurkituko dituzu.

4. ZEREGINA: Taldeek beren fanzineak amaituta dituztenean, ikastetxeko gainerako ikasle eta irakasleei, familiei eta abarri aurkeztuko dizkiete. Horrek prozesuari benetako zentzua emango dio, eta ikasleek zereginarekin eta emaitzaren kalitatearekin duten konpromisoa handituko du.

Ekitaldi berezi bat prestatu daiteke gure auzoan kultur aniztasuna ospatzeko eta zabaltzeko. Zentroko web-orrian, web instituzionalean edo sare seguru batean ere grabatu eta zabaldu daiteke.

Aurreikusitako iraupena:

- **1. zeregina:** ordubete (saio 1).
- **2. zeregina:** ordubete (saio 1).
- **3. zeregina:** 2 ordu (2 saio).
Beharrezkoa izanez gero, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete eta 3. zeregina entregatzeko astebete eman dakieke.
- **4. zeregina:** egun bat edo astebete.

*OHARRA: *Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun*

instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.

Laguntzarako materialak:

Zer da fanzine bat?

- <https://es.wikipedia.org/wiki/Fanzine>

Egin dezagun fanzine bat! Tutoriala:

- <https://youtube.com/playlist?list=PLtCKLS4S1pvd8GfMMksctAEL35t-6QkSQJ>
- <https://youtu.be/MrWiKNIJtRM>
- <https://redplanea.org/recursos/fanzin-etica/>
- https://ia903206.us.archive.org/5/items/40-zine-dcdapc-digital-af/40_zine_DCDAPC_digital_AF.pdf
- <https://www.sleepydays.es/2016/04/consejos-hacer-fanzine.html>

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko go-goeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

3. Jarduera:



Izenburua: Uharte mortua

Kategoria: TXIRIKORDATU

Aurkezpena:

Jarduera honen bidez, gure egungo gizartearen aniztasunak munduko beste leku batzuetatik datozen pertsonen diskriminazioa ekarri ote duen hausnartuko dute ikasleek, eta horrek Afrikatik Euskadira migratu duten pertsonen tratu-berdintasunik eza ekarri ote duen.

Helburu didaktikoak:

1. Ikasleen artean enpatia, tolerantzia eta ulermena sustatu.
2. Komunitate bat osatzen duten pertsonen artean egon daitezkeen desberdintasunei buruzko hausnarketa eragin, eta desberdintasun horiek ez dutela inoiz beren eskubideak murriztu behar jabetu.
3. Lankidetzak komunitate baten funtzionamendurako duen garrantziaz kontzientziatu.
4. Komunitate batean sor daitezkeen diskriminazio-egoerez jabetu.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Elkarbizitzarako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. Balio etikoak.

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Euskal gizartea kultura, erlijio eta ezaugarri fisiko desberdinak dituzten pertsonen osatzen dute. Pertsona horiek Euskadin garatu eta trebatu dira, askotan oso adin txikia zutela hasita, eta, horrenbestez, adin bereko beste edozein pertsonaren bizi-ibilbide berberetan parte hartu dute.
- Ez dago euskal herritar sentitzeko modu bakarra, asko daude.

Garapena:

Gela hamar bat laguneko taldetan banatuko da. Talde bakoitzeko pertsona bakoitzak barruan txartel bat daukan gutun-azal bat jasoko du. Gutun-azala ireki gabe gordeko dute dinamikaren bigarren zatira arte.

Dinamizatzailleak istorio hau azalduko die taldeei: *“Itsas hondoratze batetik bizirik atera zarete. Uharte mortu baina abegitsu batera iritsi zarete, eta ez dakizue egunen batean handik irten ahal izango zareten, ez baita mapan agertzen eta inork ez baitu aurkitu orain arte”*. Naufragoek elkarbizitzarako arau batzuk idatzi beharko dituzte komunitate txiki bat antolatzeko (baina ez dakite zein rol egokitu zaien: gizona, emakumea, haurra, emakume zaharra...). Taldeko pertsona guztiek idatzi beharko dituzte sortzen diren eta komuni-

tate gisa jarduteko beharrezkotzat jo dituzten bizikidetza arauak.

Komenigarria litzateke dinamizatzaile bat izatea 10 pertsonako talde bakoitzeko. Horren zeregina izango litzateke taldeko kideak dinamizatzea, pertsona guztiek ideiak emanaz parte har dezaten saiatzea eta garapenean sor daitezkeen zalantzak argitzea, baina inoiz ezingo ditu zuzendu, ezta taldearen iritziak aldatu ere (*gida gisa 1. eranskina erabili*).

Elkarbizitzarako arauak ezarri ondoren, taldeko pertsona bakoitzak egokitu zaion rolaren gutun-azala irekiko du. Une horretan, beste eztabaida bat hasiko da taldean, orain arte ezarritako arauen eta komunitateko kide guztien eskubideen arteko bateragarritasuna ikusteko. Hortik aurrera, mota guztietako aldaketak egin ahal izango dira eta behin betiko arauak idatziko dira.

Azkenik, talde bakoitzak komunitate txikirako ezarritako arauak azalduko ditu gutun-azala ireki aurretik eta ondoren, eta aldaketarik egin behar izan duten eta zergatik egin duten azalduko dute.

Aurreikusitako iraupena:

- Ordubete.

Laguntzarako materialak:

- Folioa eta boligrafoa parte-hartzaile bakoitzarentzat.
- Jolasa zuzentzen duen pertsonarentzako gida (1. eranskina).
- Gutun-azalak txartelekin (2. eranskina).

Gogoetarako eta jarduerari xteko galderak:

1. Lehenengo bizikidetza-arauak ezartzean, kontuan hartu al dituzue komunitateko kide bakoitzaren beharrak eta eskubideak? Eta bigarren zatian?
2. Nola sentitu zarete egokitu zai zuten pertsonaia zein den jakitean?
3. Bizikidetza-arauen bat aldatu behar izan duzue komunitateak funtziona dezan? Zergatik?
4. Nola lortu duzue bizikidetza-arau berriak ezartzeko akordio bat?
5. Zer garrantzi izan dezake kideen arteko lankidetzak komunitate baten funtzionamendurako?
6. Dinamika honen hasieran, talderen batek kontuan izan du komunitate bat pertsona desberdinek osatzen dutela?
7. Komunitatean bizi garela uste duzue?
8. Zertan da dinamikako komunitatea bizi garen komunitatearen antzekoa?
9. Uste duzue bizi garen komunitatean komunitatea osatzen duten pertsona guztien beharrak eta eskubideak errespetatzen direla? Zergatik?
10. Gutako bakoitzak, komunitateko kide garen aldetik, egin dezakegu zerbait elkarbizitza hobetzeko?

1. ERANSKINA: Jolasa zuzentzen duen pertsonarentzako gida

Jolasa zuzentzen duen pertsonak taldeari azalduko dio sortu berri den komunitatearen helburua bizirik irautea dela, kide bakoitzaren beharrei behar bezala erantzunez. Horretarako,

ezinbestekoa da pertsona guztien eskubideak artatu eta zaintzeko oinarritzko arauak ezartzea. Oso litekeena da behar hauetakoren bat izatea, baina ez nahitaez:

1. Biziraupena:

- Ura.
- Elikagaiak.
- Tresnen fabrikazioa...

2. Babesa:

- Etxebizitzak, aterpeak...

3. Osasuna:

- Higienea.
- Gaixoen eta mendekotasuna duten pertsonen zaintza...

4. Hezkuntza:

- Ezagutzen transmisioa edozein arlotan...

5. Justizia:

- Arau bidezkoak guztientzat.
- Gainerako pertsonen eskubideen zaintza eta errespetua


Beste behar batzuei buruz ere hitz egin liteke. Dena dela, ezinbestekoa da arauak komunitateko kide guztiei kasu egin eta guztiak kontuan hartu behar izatea, haien arteko desberdintasunak eta mugak onartuz eta errespetatuz. Inor ezin da baztertu edo artarik gabe utzi; garrantzitsua da pertsona guztiek eskubideak eta betebeharrak bereganatzea, betiere, beren aukerak kontuan hartuta.

Talde bakoitzaren eztabaidan eta azken azterketan ezinbestekoa den beste alderdi bat lankidetzaren garrantzia izango da. Komunitateko pertsona bakoitzak besteen eskura jartzen baldin baditu bere ezagutzak, trebetasunak eta ahalegina, horrek eragina izango du komunitatearen ongizatean nahiz norberaren ongizatean.

2. ERANSKINA: Txartelak:

Txarteletan honako rol hauek ager daitezke:

- Gizon elbarria zara.
- Haurdun dagoen emakumea zara, haurtxo bat izateko zorian.
- Haur indigena zara. Uhartea eta naturaren baliabideak ezagutzen dituzu.
- Emakume soldadua zara. Istripu baten ondoren, esku bat galdu eta "maingu" zaude.
- Langilea zara, gizonezkoa. Zure hirian eraikuntzan lan egiten zenuen, baina, zure bizilekua beste herrialde batera aldatu ondoren, inork ez zintuen berriro kontratatu.
- Emakume intelektuala zara. Oso famatuak izan diren abentura-liburuak idatzi dituzu.
- Gizon itsua zara. Itsu gelditu aurretik arrantzale profesionala zinen.
- Emakume gaizkilea zara. Urte batzuk eman dituzu kartzelan.
- Emakume afrikarra zara. Zure herrialdean aurpegia estalita eramatera behartzen zintuzten, ezin zenuen ikasi, ezin zenuen lan egin, jendaurrean hitz egin eta irribarre egin ere ez. Hondoratu den itsasontzian zure herrialdetik ihesi bidaiatzen ari zinen.
- Arraza beltzeko agurea zara.
- Hamaika urteko neskatua zara.
- Gizon astronauta zara. Ilargira bidaiatu duzu.
- Ijito arrazako emakumea zara.
- Oso herrialde aberatseko ministroa zara.
- Emakume alkoholikoa zara.



3. Jarduera:



Izenburua: Nire taldean zaude?

Kategoria: JOLASTU, TXIRIKORDATU

Aurkezpena:

Jarduera honen bidez, ikasleak hobeto jabetuko dira inguruan ditugun pertsonak aukeratzeko orduan arreta gehien jartzen diegun alderdiez. Normalean, modu inkontziente eta automatizatuan egiten dugu hori, eta, beraz, gure ingurune sozialeko kide izan daitezen nahi dugun pertsonengana hurbiltzeko erabiltzen ditugun irizpideak birpentsatzera bultzatzeak pentsamendu kritikoa eta ikaskuntza-prozesua sustatuko ditu, adimena ireki eta aukera berriak ematen ikasteko.

Helburu didaktikoak:

1. Berdintasunak edo desberdintasunak besteengana hurbiltzeko orduan duen eragina eta horretarako ditugun irizpideak ezagutu.
2. Talde batean sartu edo kanpoan geratu ahala nola sentitzen garen esperimendatu.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna
2. Elkarbizitzarako gaitasuna

3. Hitzeko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna

Oinarrizko ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Balio etikoak.** (Gaitasun sozial eta zibikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Pertsona guztiok talde sozialetakoak gara (familia, lagunak, ikastetxea, kirol-kluba eta abar), batzuk eman egiten dizkigute eta beste batzuk aukeratu egiten ditugu. Talde bateko kide izatea garrantzitsua da gure garapen pertsonalerako eta sozialerako.
- Normalean, pertsonak haiekin lotzen gaituenaren arabera aukeratzen ditugu; hori da giza harremanen alderdi ona, hainbat taldetakoak izan gaitezke garena izateari utzi gabe.
- Jokoan kanpoko elementu bat jartzeak definitzen du, kasu honetan, talde bateko kide izatea; azken batean, beharbada taldean egoteko garrantzitsuak ez diren alderdiengatik.
- Pertsona batzuegana ez gara hurbiltzen, aurreiritziengatik edo aurrez pentsatutako ideiekin. Pertsona guztiei aukera eman behar diegu, ezagunak izateko eta elkar ezagutzeko, eta zein taldetakoak izan daitezkeen aukeratzeko.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Bakarrik senti daitezkeen pertsonei eta haien erreakzioei arreta jartzea.

- Alderdi fisikoengatik, jantziengatik, jarduteko moduengatik eta abarreatatik izan daitezkeen diskurtso estereotipatuak eta/edo aurreiritziak identifikatzea, beste pertsona batzuk gutxiesten eta diskriminatzea dakarten rol eta alderdiak barne.

Garapena:

Parte-hartzaileak zirkuluan jarriko dira, eta begiak ixteko eskatuko zaie. Jolasa zuzentzen duenak koloretako eranskailu bat jarriko du zirkuluko pertsona bakoitzaren aurrean, eta ez die kolore bera esleituko inguruko parte-hartzaileei. Eranskailuak hainbat koloretakoak dira, baina norbaitek kolore bateko eranskailua izango du, ikasgelako inork ez duena.

Garrantzitsua da argitzea zati hau amaitu baino lehen ezin direla begiak ireki, eta, hori eginez gero, egin duena jokotik kanpo geratuko dela.

Ondoren, agindu hau emango zaie: *“Orain, ireki ditzakezue begiak, eta, HITZ BAKAR BAT ERE EGIN GABE, espazioan argi definitutako taldeak osatu behar dituzue”.*

Taldeak antolatu ondoren, parte-hartzaileak, monitoreak barne, berriz ere zirkuluan eseriko dira, eta talde bakoitza osatzen duten pertsonak gertu egongo dira, azterketa egiten hasteko. Hona hemen horretarako lagungarri gerta dakizkigukeen zenbait galdera:

- Zein izan da taldeak osatzeko irizpidea?
- Oso ohikoa al da taldeak kolore

beraren arabera osatzea? Ez al dago beste irizpiderik, adibidez, ostadarra osatzea?

- Zergatik hurbiltzen gara gure antzik handiena duenarengana?
- Zer pentsatu eta sentitu dute talderik gabe geratu diren pertsonak?
- Zer pentsatu dute besteek haiek ikustean? Konturatu al dira?
- Beste pertsonen iritzia eraginik izan du talde batengana edo bestearengana hurbiltzeko?
- Taldea libreki aukeratu bazenute, pertsona horiek berek osatuko lukete?

Aurreikusitako iraupena:

- Ordubete.

*OHARRA: *Hemen ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakas-kuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak:

- Hainbat koloretako itsasgarriak.

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko go-goeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

